

2002-07-27
kioskoa**Iban Arregi**

Erantzun egin behar azkenean

Orain kasik aipatzerik merezi ez zuten gaiak izan arren, azkenean egunkari abertzaleek ere Maruriko apaizaren eta Lleraren gainean hitz egin dute. Hainbestekoa izan da batik bat **El Mundo**, **La Razon**, **El Diario Vasco** eta **El Correo** egunkarien kanpaina abertzaleen kontrakoa... Euskal gotzainen pastora-la, Ana Urchuegia, Francisco Llera, Maruriko apaiza... Atzo, oraindik, apaizaren bueltan zebiltzan egunkari guztiak —Aznarrek ere hitz egin zuen eta!—. Abertzaleak ere bai; azkenean, erantzun egin behar; zer erremedio! **Deia** egunkariaren atzoko editorialak honela zioen: «Mauriko erretorea, arma jaurtigai bezala» erabili dutela. Egunkari horren arabera, «euskal nazionalismoaren kontrako kanpainak jarraitu egiten du, Aznarren tonuz kanpoko ateraldiarekin». «Alkate baten eta apaiz baten ika-mika hutsa» era horretan baliatu eta puztu izana kritikatu zuen **Deia**-k. **Gara** egunkariak ere Maruriko apaizaren gaiari eskaini zion atzoko editoriala. «Zeinek eta Aznarrek» Maruriko Udalari nazi deitu izana azpimarratu zuen egunkari horrek. Aznarren hitzen inguruan ere hitz egin zuen **Gara**-k, baita EAJren erantzunaren inguruan ere: «Aznarren hitzak 'gaitzesgarriak' direla esan du EAJk; eta, zalantzarik gabe, hala dira. Baina alderdi jeltzaleak eta Eusko Jaurilaritzak beste batzuetan erabili dituzten espresio eta asmoen antzekoak dira Aznarrenak». «Gauzak testuingurutik» ez direla atera behar zioen **Gara**-k. Horretan ziharduten atzo, artean, **El Diario Vasco**, **El Correo**, **El Mundo** eta **La Razon**-ek, besteak beste: orain kasik aipatzerik merezi ez zuten gaiak puzten, eta abertzaleen kontra baliatzen.

Egunkaria
euskaldunon 3.613. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezakaria:** Iñaki Uri**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com

IKUSKATURIKO HEDAPENA
Batxorde Parekidea: 72664 E. Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13 esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 55925711

martintxo



hizpideak

Lehen urratsa, Kalitate Legearen onarpen bidean

Atzo onartu zuen Espainiako Gobernuak Kalitate Legea; eta, hortaz, orain Parlamentuan eztabaidatu eta onartuko dute. Hasieratik egindako kritikak errepikatu zituzten atzo PP ez besteko alderdi eta hezkuntza eragile gehienek. Guztien ahotan, legeari buruzko honako kalifikatzaileak zebiltzan: «atzerakoia, uniformizatzailea eta bazter-tzailea». Batzuk urrunago joan ziren, eta Francoren garai-ko legea zela esan zuten; esaterako, CCOO sindikatuak. Horrela izanik, sektore guztiek elkar hartu, eta gogor egin beharko diote aurre horrelako egitasmo bati.

Uriarteri dagokio EHUko katedra, auzitegiaren ustez

Bizkaiko Auzitegiak ebatzi du Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Zientzia Politikoetako katedra Edurne Uriarteri dagokiola. Horrela, baliogabe utzi du EHUko Erreklamazio Batzordearen deliberoa, zeinaren arabera, katedra hori Francisco Letamendia irakasleari zegokion. Lehen aldia da epaitegiek deliberatzen dutena unibertsitateari dagokion afera batez. Ez da seinale ona, batez ere ikusita gai honetan hasiera-hasieratik izan den ika-mika politikoa eta hedabide batzuek erabili duten alde bateko-tasuna, Edurne Uriarteren hautagaitza laguntzeko.



PPren Kalitate Legearen kontra Bilbon maiatzean eginiko manifestazio handia.



Peter Caruana Gibraltargo ministro nagusia, ezkerrean.

UEU, daukagun onena

Xabier Iasik azpimarratu zuen UEUren aurkezpen egunean: aurtengo ikastaroetan euskaraz unibertsitatean ematen den onena izango zela ikastaroetan. Maila oso ona eman dutela garbi gelditu da egunetik egunera. Zinemagintza ikastaroan egin den gogoeta; sexismoaz gai eta proposamen berriak plazaratzeko izan den ausardia; itzulpengintza eta literaturari buruzkoan izan den osotasuna, aurretikako lana; Matematikan edo Fisika sailtan jorratu dituzten gai egunerokotasun handikoak; informatika ikastaroak izandako arrakasta... Eskaintza kitzigarria, dudarik gabe. Eta ikastaroen garaian bertan, EHUren sinaturiko lankidetzak hitzarmenak bide berriak zabal ditzake, gainera, euskal unibertsitatearen aldarria gero eta gehiago haizatu nahi dutenentzat.

Gibraltarrek erreferendumari eutsi egingo dio

«Eszentrikotzat» jo zuen atzo Erresuma Batuko Atzerri ministro Jack Strawk Gibraltargo lehen ministro Peter Caruanak herenegun iragarritako erreferenduma. Ana Palacio Espainiako Atzerri ministroak, berriz, «egintza burutuen bidea» salatu zuen. Caruanak erreferenduma-ren bidez gibraltardarrek Londres eta Madril haitzaren subiranotasuna partekatzeko aztertzen ari diren proposamenaren aurrean duten iritzia azaltzea nahi du eta ahal bada baita akordioa lor dezaten eragotzi ere. Hala, erreferenduma egiteko asmoa berretsi du, eta Espainia edota Londresek eragozten badute egitasmoaren «izaera anti-demokratikoa» erakutsiko lukeela nabarmendu.